

Ekainean, uztailan eta abuztuan 25.000 bidaiari-sarrera gehiago erregistratu ziren 2006ko aldi berean baino

Bidaiarien sarrerak %6 igo ziren abuztuan eta gualdiak %3 jaitsi

Eustaten datuen arabera, 2007ko ekain, uztail eta abuztuan 25.000 bidaiari-sarrera gehiago izan dira Euskal Autonomia Erkidegoko hoteletan 2006 aldi berean baino; horietatik 13.000 abuztuan.

2007ko abuztuan 236.415 bidaiari-sarrera izan ziren, %6ko hazkundera. Bidaiarien sarrerak gehitu egin ziren Gipuzkoan (%14) eta Bizkaian (%3), baina %5 gutxitu ziren Araban, 2006ko abuztuko datuen aldean.

Estatutik datozen bidaiarien sarrerak %2 jaitsi ziren eta atzerriko bidaiarienak, ostera, %19 igo. Estatuko bidaiarien presentzia Gipuzkoan bakarrik hazi da; atzeritikoak gehiago izan dira hiru lurraldeetan. Bizkaian (%20), Gipuzkoan (%19) eta Araban (%16).

Estatutik etorritako bidaiarien artean, gehitu egin ziren, besteak beste, Madrildik eta Asturiastik etorritakoak. Gutxitu egin ziren, batez ere, Katalunia, Valentzia eta Andaluziatik etorritakoak. Atzerriko bidaiarien artean, gehitu egin ziren Frantziatik, Belgikatik, Alemaniatik, eta Erresuma Batutik etorritakoak; urritu egin ziren, aldiz, AEB-Kanadetatik, eta Japoniatik etorritakoak.

2007ko abuztuan erregistraturiko gualdiak 498.102 izan ziren, hau da, iazko abuztuaren aldean %3ko jaitsiera eta 17.000 gualdi gutxiago. Gualdiek Gipuzkoan urte arteko bilakaera positiboa izan zuten (%2); baina Bizkaian (%5) eta Araban (%16) gutxitu egin ziren.

Euskal AE osotara hartuta, 2007ko abuztuan bidaiarien batez besteko egonaldia %8 laburtu eta 2,30 egunetik 2,21era pasa zen.

2006ko abuztuaren aldean, plazakako betetze mailan %10eko jaitsiera izan da eta %8koa gelakakoan. Plazakakoa %73,40tik %66,35era jaitsi da eta gelakakoa %77,72tik %71,75era. Jaitsiera hau, neurri batean, batez besteko egonaldia laburtzeari zor zaio, eta hotel-establezimenduak gehiago izateari.

2007ko udako hilabeteetako balantzea eginez gero (ekaina-uztaila-iraila), Euskal AEn, %4 gehiago izan ziren bidaiarien sarrerak 2006ko udaren aldean; igo egin zen Bizkaian (%6), igo baita ere Gipuzkoan (%4) eta Araban, ostera, (%2) murriztu.

Gualdiak %1 gehitu ziren aldi berean, hots, aurreko urtean baino 11.000 gualdi gehiago izan ziren. Bizkaian gehitu egin dira (%4), eutsi Gipuzkoan (%0,0) eta Araban %6 jaitsi dira.

NEKAZALTURISMOA

Gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (%11) eta gaualdiak (%2) 2007ko abuztuan

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 14.554 bidaiari-sarrera zenbatu dira joan den abuztuan, aurreko urteko hil berean baino %11 gehiago: %28 ugaritu dira Araban, %11 Gipuzkoan, eta %3 Bizkaian. Estatutik etorritako bisitariak %10 gehitu ziren Euskal AEn, eta atzerriketakoak %14.

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gaualdiak 69.465 izan ziren 2007ko abuztuan, 2006ko hil berean baino %2 gehiago. Urte arteko hazkunde-tasak positiboak izan ziren Gipuzkoan (%4) eta Bizkaian (%1), eta negatiboak Araban (%-3).

Bidaiariko batez besteko egonaldia 5,18 egunetik 4,77 egunera murriztu zen azkeneko abuztuan.

Plazakako betetze-maila %11 jaitsi zen eta gelakakoa %9.

2007ko **ekainean, uztailan eta abuztuan**, Euskadiko nekazalturismoetan, iazko aldi berean baino bidaiari-sarrera gehiago izan dira, %1, hau da, ia 500 sarrera gehiago; gaualdiek lehengoan iraun dute. Gaualdiek orain urtebeteko kopuruari eutsi badiote ere, betetze-maila nekazal etxeen eskaintza zabalagoagatik jaitsi da.

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	08 2007	%	08 2006	%	Δ %	08 2007	%	08 2006	%	Δ %	08 2007	%	08 2006	%	Δ %	08 2007	%	08 2006	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	498.102	100	515.133	100	-3	59.896	100	71.093	100	-16	221.571	100	232.155	100	-5	216.635	100	211.885	100	2
Estatukoak	326.822	66	362.414	70	-10	44.508	74	57.229	80	-22	130.596	59	151.706	65	-14	151.718	70	153.479	72	-1
Atzerrikoak	171.280	34	152.719	30	12	15.388	26	13.864	20	11	90.975	41	80.449	35	13	64.917	30	58.406	28	11
Hiriburua	279.745	56	298.237	58	-6	41.589	69	48.903	69	-15	126.888	57	134.184	58	-5	111.268	51	115.150	54	-3
Litoral	72.691	15	69.957	14	4	-	-	-	-	-	27.945	13	30.956	13	-10	44.746	21	39.001	18	15
Barnealdea	145.666	29	146.939	29	-1	18.307	31	22.190	31	-17	66.738	30	67.015	29	0	60.621	28	57.734	27	5
BIDAIARIEN SARRERAK	236.415	100	223.769	100	6	33.556	100	35.341	100	-5	108.047	100	105.132	100	3	94.812	100	83.296	100	14
Estatukoak	143.298	61	145.775	65	-2	23.148	69	26.337	75	-12	59.024	55	64.392	61	-8	61.126	64	55.046	66	11
Atzerrikoak	93.117	39	77.994	35	19	10.408	31	9.004	25	16	49.023	45	40.740	39	20	33.686	36	28.250	34	19
Hiriburua	130.323	55	132.320	59	-2	23.324	70	25.162	71	-7	61.360	57	64.028	61	-4	45.639	48	43.130	52	6
Litoral	27.266	12	24.718	11	10	-	-	-	-	-	10.945	10	11.515	11	-5	16.321	17	13.203	16	24
Barnealdea	78.826	33	66.731	30	18	10.232	30	10.179	29	1	35.742	33	29.589	28	21	32.852	35	26.963	32	22
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,11		2,30		-8	1,78		2,01		-11	2,05		2,21		-7	2,28		2,54		-10
BETETZE-MAILA PLAZAKA	66,35		73,40		-10	53,73		68,79		-22	63,88		69,08		-8	74,08		80,76		-8
Hiriburua	68,98		74,98		-8	55,23		69,28		-20	65,31		69,02		-5	81,84		86,75		-6
Litoral	73,92		77,02		-4	-		-		-	70,37		74,24		-5	76,33		79,38		-4
Barnealdea	59,01		68,91		-14	50,60		67,72		-25	59,14		67,03		-12	61,96		71,74		-14
BETETZE-MAILA GELAKA	71,75		77,72		-8	57,46		70,74		-19	69,56		73,81		-6	80,39		86,55		-7
Hiriburua	73,91		79,29		-7	59,35		71,98		-18	70,39		74,28		-5	88,54		91,88		-4
Litoral	78,36		83,74		-6	-		-		-	75,59		79,25		-5	79,84		87,80		-9
Barnealdea	65,28		72,35		-10	52,95		67,66		-22	66,24		70,95		-7	68,83		76,36		-10
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	69.465	100	68.020	100	2	8.503	100	8.744	100	-3	22.481	100	22.168	100	1	38.481	100	37.108	100	4
Estatukoak	59.995	86	60.488	89	-1	7.658	90	8.164	93	-6	18.966	84	18.695	84	1	33.371	87	33.629	91	-1
Atzerrikoak	9.470	14	7.532	11	26	845	10	580	7	46	3.515	16	3.473	16	1	5.110	13	3.479	9	47
BIDAIARIEN SARRERAK	14.554	100	13.133	100	11	2.518	100	1.960	100	28	4.609	100	4.489	100	3	7.427	100	6.684	100	11
Estatukoak	12.502	86	11.336	86	10	2.208	88	1.773	90	25	3.806	83	3.697	82	3	6.488	87	5.866	88	11
Atzerrikoak	2.052	14	1.797	14	14	310	12	187	10	66	803	17	792	18	1	939	13	818	12	15
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	4,77		5,18		-8	3,38		4,46		-24	4,88		4,94		-1	5,18		5,55		-7
BETETZE-MAILA PLAZAKA	63,61		71,85		-11	42,59		53,22		-20	61,46		67,72		-9	73,06		81,54		-10
BETETZE-MAILA GELAKA	71,18		77,88		-9	46,84		57,50		-19	68,95		73,64		-6	82,22		88,54		-7

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp